txintxarri

2021-12-17 OSTIRALA / 1568. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Badatozela!

Iaz bezala, desfilerik ez dute egingo Mari Domingik eta Olentzerok, baina ez dute hutsik egingo eta Lasarte-Oriara etorriko dira / 4-5

Ges aseguruak

Eguberri on!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

✓Etxeko aseguruak
✓Komunitateak
✓Kotxeak
✓Dendak
✓Aurrezkiak
✓Istripuak
✓Enpresak
✓Bizitza aseguruak
✓Eta gehiago!

Pablo Mutiozabal kalea 2 - 1. solairua, 8. bulegoa - Tel. 943-36 58 99 - cristina_arteaga@ges.es - Lasarte-Oria



2022 zoriontsua
opa dizuegu.
Eguberri on!

OGI BERRI

Kalitatea dastatu

Gure ogiak:

Cristal
Molde Cristal
Parisien
Txabola
Mendiko
Txapeldun
Leña ligth
Espelta
Vital
Artoa
Salud
Artoa zerealekin
Aleman
Molino
Verde
Espelta zerealekin
Ogicol
Kurkuma, intxaurrak eta mahaspasak

BETIKO Kafea

Bila zabiltzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!

Pablo Mutiozabal 3 • Tel: 943-36 41 21 •20160 LASARTE-ORIA

Txintxarri

eta

Ttakun KEk

Eguberri eta urte berri on

opa dizkizuete

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Nerea Segura, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak: Unai Bardaji, Lide Hidalgo, Uxue OdriozolaT, Julene Iraola, Egoitz Epelde, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 688 68 35 10
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aurtengo Eguberriak ere, bereziak

Koronabirusaren eraginez, Ttakun Kultur Elkarteak moldatu egin behar izan du aurtengo Gabonetako jarduera sorta ere. Herrian zehar desfilatuko ez duten arren, Olentzero, Mari Domingi eta lagunak Lasarte-Oriara etorriko dira hilaren 24an, ostiralarekin

Marimotots, Mariteilatuko, Mari Domingi, Olentzero, Xixuko eta Porrotx. Aurten ere lagun horiek

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak iristear diren Eguberrietan aurrera eramango dituen jarduerei buruz idazten hasi garenean, honakoa gertatu zaigu: sentitu dugu lerro hauek ez ditugula aurrenekoz idatzi, lehendik ere jardun garela koronabirusaren eraginari buruz. 2020ko Gabonak bereziak izan ziren, pandemiak eragindako egoerara halabeharrez egokituak, eta, tamalez, aurtengoak ere halakoak izango dira, SARS-CoV-2 birusa oldartuta baitabil, seigarrenez. Hori horrela izanik, euskara elkarteak moldatu egin behar izan du ekitaldien eskaintza. Egitaraua desberdina izanagatik, erakargarria da, hurrengo lerroetan irakurriko duzuenez. Lasarte-Oriako Udalarekin sinatuta dituen hitzarmenen barruko egitasmoak dira guztiak.

Hilaren 21ean izango da San Tomas eguna, azokarik gabea. Lasarte-Oriako Udalak bertan behera uztea erabaki du, jende pilaketak eragin ditzakeen ekimena delakoan. Data berezi horren magiari eusteko ahaleginetan, Ttakunek talo ikastaroak egingo ditu bezperan, 20an, astelehenarekin, Ttakunenea elkartean. Ordubeteko bi saio prestatu ditu: haurrentzat (LH 2. mailatik 1. Batxilergora) bat, 17:30ean; eta helduentzat bestea, 18:30ean. Elkarteko Kultura sailak jakitera eman duenez, parte hartzeagatik ez dute ezer ordaindu beharko herritarrek. Interesa dutenek *kultura@ttakun.eus* helbide elektronikora idatzi edo 695 78 53 89 telefonora deitu behar dute.

Ongietorria bai, desfilea ez

Nor ez da urduritzen egutegia hartu, eta abenduaren 24a gero eta gertuago dagoela ikustean? Egun gutxi falta dira Olentzero eta Mari Domingi menditik jaisteko eta herrira etortzeko, Xixuko eta Mariteilatukorekin batera. Porrotx eta Marimotots zain izango dituzte, ikuskizun koloretsu bat egin eta lasarteoriatarrekin biltzeko. Egun horretan bertan egingo dute emanaldia, 13:00etan hasita. Tokia oraindik zehazteke dute udalak eta Ttakunek, espazioari buruzko lanketa berezi bat egiten ari baitira, pandemiak eragindako egoera tarteko. Laster iragarriko dute non egingo duten, eta ikustera joan nahi dutenek nola eskura ditzaketen sarrerak. TXINTXARRI aldizkariak bere atari digitalean emango du horren berri. Adi egon!

Ikuskizunaren aurretik, Olentzero eta Mari Domingiri harrera egingo dio herriak. Ttakunek lau gune prestatu ditu horretarako: Garaikoetxea Landaberri eta Sasoeta Zumaburu ikastetxeak, Zabaletako frontoia eta Oriako eliza, Karmengo Ama. 10:00etatik 12:00etara egingo dituzte txandak. Lasarteoriatarrek hilaren 18tik 20ra arte (bi egunak barne) eman ahalko dute izena, *www.txintxarri.eus* atari digitalean. Hilaren 17an azalduko du Ttakunek, zehatz-mehatz, hori nola egin.

Harrera hori ahalik eta beroena izate aldera, Ttakunen Amaraun Klubeko lagunek zenbait jarduera prestatu dituzte datozen egunetarako. Hilaren 22an eta 23an, 17:30etik 19:00etara, etxerako eta harrera guneetarako apaingarriak prestatuko dituzte. Taldeak ia beteta daude honezkero. Horrez gain, 24an herrira etorriko diren pertsonaia magikoei laguntzeko, ikuskizunean galtzagorri gisa parte hartzeko deialdia ireki du Aisia sailak. Jakinarazi du 5 eta 8 urte bitarteko haurrek parte hartu ahalko dutela. Izen ematea hilaren 19ra arte dago zabalik. Interesa dutenek 943 37-14 48 edo 695 78 53 92 telefonoetara deitzeko edo *aisia@ttakun.eus* helbidera idazteko eskatu du Ttakunek. "Segun eta zenbat haur apuntatzen diren, zozketa egingo dugu".

Gazte Klubean ere, ekimenak

Amaraun Klubekoek bezalatsu, Gazte Klubeko lagunek antolatu dituzte zenbait ekimen Gabonei begira. Hilaren 23an, ostegunez, *City jump* irteera egingo dute. Egun osokoa izango da, 09:45etik 18:30era. LH 3 eta 6 maila arteko gazteek parte hartu ahalko dute,

guztiak elkartuko dira hilaren 24an, ikuskizun koloretsu bat egiteko. TXINTXARRI

eta Ttakunek zehaztu duenez, bazkaria eta askaria eraman. Elkarteko bazkide direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek, 25. Irteerara doazenek galtzerdi irristagaitzak eraman beharko dituzte. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko, *aisia@ttakun.eus* helbide elektronikoa edo 695 78 53 92 telefonoa erabil ditzakete herritarrek.

Eguberrietarako antolatu duten beste jarduera ere gorputza gogotik astintzekoa da: olinpiadak egingo dituzte, herriko zenbait gune eta eraikinetan, hilaren 27tik 29ra. Ttakunek zehaztu duenez, parte hartzen duten gaztetxoak taldetan banatuko dituzte, eta proba ugari egingo dituzte hiru egun horietan.

Jarraipen berezia

Eguberrietako ospakizunak ohikoak edo ezohikoak izan, TXINTXARRI aldizkariak jarraipen berezia egingo du datozen egunetan. Jardueretako argazki, bideo eta gainerakoak kanal berezi batean jasoko ditugu, eta irakurle guztien eskura jarri *www.txintxarri.eus* atari digitalean zein sare sozialetan.

Horrez gain, 2021ko azken zenbakian, urtekarian, aipamena ere egingo diegu. Agerkari hori hilaren 29an argitaratuko dugu, asteazkenarekin.

Sasoeta Zumaburuko ikasle eta irakasleek harrera beroa egin diote ahate maitagarriari. Xixukok ikasleen marrazkiak jaso ditu. TXINTXARRI

Eguraldi paregabea lagun, Xlxuko ahateak tarte ederra igaro du Garaikoetxea Landaberri ikastetxeetako gaztetxoekin. Marrazki ugari bildu ditu han ere. TXINTXARRI

Haur zein helduentzako talo ikastaroak hilaren 20an egingo ditu Ttakun KEk, Ttakunenea elkartean. TXINTXARRI

Kultur jarduerak urtea amaitzeko

Konturatzerako amaitzear da 2021. urtea ere. Gabon giroa sumatzen da dagoeneko Lasarte-Orian; horren adierazle dira hilabetea amaitu aurretik iragarri dituzten zenbait kultur jarduera ere. San Tomas Egunetik hasi eta Urte Zahar egunera bitarte, ekimen ugaritan parte hartzeko aukera izango dute herritarrek. Koronabirusaren eragina nabaria izango da aurten ere

Urtero bezala, Gabonetako argiek herriko kaleak girotuko dituzte. TXINTXARRI

Brigitarren komentuko jaiotza ikustera joateko aukera dute herritarrek. TXINTXARRI

Txintxarri

Urte sasoi honetan, Eguberri giroa nabari da Lasarte-Oriako kaleetan. Kale argiztapenak gogorarazten digu amaitzear dagoela urtea. Abenduaren 4an piztu zituzten aurtengo Gabonetako argiak eta urtarrila hasierara arte argiztatuko dute herria. Urtero bezala, Aterpea merkatarien elkarteko hamazazpi establezimenduk erakusleihoak apaindu dituzte eta gustukoena aukeratzeko lehiaketa abiatu dute. Larunbatera arte (abenduak 18) izango dute herritarrek parte hartzeko aukera, sare sozialen bidez. Horretarako, erakustoki dotoreenari argazkia atera eta Facebook edo Instagramera igo beharko dute. Zozketaren irabazleak 200 euro jasoko ditu. Bestalde, hilabete bukaerara arte, Eguberrietako kanpaina ere martxan izango dute. Bezeroen fideltasuna saritzeko Aterpeako 46 establezimenduetan erosketak egiten dituzten pertsonen artean Eguberrietako sortak zozkatuko dituzte. Abenduaren 31ra arte izango dute herritarrek parte hartzeko aukera.

Kultur deialdiak

Bi aste eskas besterik ez dira geratzen 2021 amaitzeko, eta, aurten ere, kultur jardueretan parte hartuz agurtu ahal izango dute urtea herritarrek. Aurtengo Gabonetako jarduerak ere koronabirusak baldintzatuta egongo dira, baina izango da gozatzeko aukera bat baino gehiago.

Jaiotzak ikusteko aukera izango dute lasarteoriatarrek. Horretarako Ama Brigitarren komentura joan beharko dute. Hala, Danok Kide guraso elkarteak antolatu duen XVIII. Jaiotzen Lehiaketako lanak San Pedro elizan jarriko dituzte ikusgai sari banaketa egin bitartean, eta irabazleak, berriz, Azpeitia altzairu dendan. Antolatzaileek iragarri dute jaiotzak abenduaren 17 eta 18an entregatu behar direla elkartearen egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13an, 17:00etatik 19:00etarako ordutegian.

Biyak Bat adinekoen egoitzak ere iragarri du ekitaldirik datozen egunetarako. Jakinarazi du San Tomas eguna ospatuko duela, nahiz eta ez duen ohiko moduan egingo. Txartel batzuk banatu dituzte bazkideen artean, eta horiek aurkeztu beharko dituzte datorren asteartean, abenduaren 21ean, txorizo pintxoa eta ardo edo freskagarri bat eskuratzeko.

OSASUN EGOERA MEDIO, GABONETAKO HAINBAT EGITASMO MOLDATU EGIN DITU UDALAK

Eguberri doinuak

Doinu propioak izan ohi dituzte Gabonek eta horiek abestu eta jotzeaz arduratzen dira herriko zenbait musikari. Bihar, abenduaren 18an, Alboka abesbatzak emanaldia eskainiko du San Pedro elizan. 20:00etan izango da hitzordua. Etzi, berriz, abenduaren 19an, Zero Sette akordeoi taldearen txanda izango da. Hauek ere Eguberrietako emanaldia eskainiko dute. Kultur etxeko oholtza gainean ariko direla iragarri dute, 12:30ean. Sarrerak salgai daude Manuel Lekuonako leihatilan, 5,50 euroren truke.

Udal Musika Eskolako musikariak irtengo dira agertokira abenduaren 22an eta urteroko Gabonetako emanaldia eskainiko dute. 19:00etan hasiko da kontzertua, kultur etxean.

Erketz EDT taldeko kideek ere, urteroko kantaldia egingo dute. Hilaren 24an ariko dira,

Txoko tabernatik abiatuta, 16:30ean. Hori baino lehen, entseatu egingo dute, hilaren 20an, haien lokalean. Jakin nahi dute nortzuk entseatu eta abestuko duten, eta nortzuk animatuko diren soilik Gabonetako kantaldira. Abisatzeko, 685 72 48 71 telefonora idatzi edo deitu behar dute interesa dutenek.

Musika emanaldiekin amaitzeko, Gospel emanaldi bat iragarri dute abenduaren 29rako. Black Pearls of Gospel taldearekin gozatu ahal izango dute herritarrek. Kultur etxeko auditorioan izango da, 20:00etan eta sarrerak salgai daude hamabi euroan.

Antzerkia eta zinema ere bai

Musikaz gain, antzerki eta zinema hitzorduak ere izango dituzte lasarteoriatarrek. Bihar, hilaren 18an, esaterako, ATX Teatroa taldeak *Lubaki Lainotsua* obra taularatuko du, 20:00etan. Helduentzako ikuskizuna da eta sarrerek 5,50 euro balio dute.

Zinema proiekzioak, ordea, bat baino gehiago izango dira;

HAUR ETA HELDUEK HAINBAT KULTUR JARDUERATAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO DUTE

haurrentzako zein helduentzako filmak iragarri dituzte udalak eta Okendo Zinema Taldeak. Igandean, abenduaren 19an *Una familia feliz* ikustera joateko aukera izango dute etxeko txikiek. 17:00etan hasiko da eta sarrerak salgai daude, kultur etxeko leihatilan 3,80 euroren truke. Egun berean, baina bi ordu eta erdi geroago, hau da, 19:30ean, *Way Down* proiektatuko dute helduentzat. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Abenduaren 26an ere beste zinema saio bikoitz bat izango da; ohi bezala, arratsaldeko lehena (17:00etan) haurrentzako eta bigarrena helduentzako (19:30ean). *Trash* botako dute lehenengoan eta *Cuidado con lo que deseas* bigarrengoan. Hilabete amaieran eta Okendo Zinema Taldearen eskutik izango da urteko azken film emanaldia. Abenduaren 30ean, *Pan de limón con semillas de amapola* ikustera joateko aukera izango dute lasarteoriatarrek. 20:30ean izango da eta 5,50 euroren truke.

Momentuko osasun egoeraren ondorioz, Eguberrietako haur parkea aurten ere bertan behera utzi du udalak. Iragarrita zegoen aurtengo Gabonetako jardueren artean, baina asteon eman du erabakiaren berri.

Errege Magoen kalejirarik ez

Meltxor, Gaspar eta Baltasar etorriko dira lasarteoriatarrak bisitatzera urtarrilean, baina iaz bezala, ezingo dute herrian barrena kalejirarik egin. Horrela iragarri du udalak. Jende pilaketak ekiditeko helburuarekin hartu du aipatu erabakia, eta jakinarazi, bestelako proposamenak lantzen ari dela Megaba elkartearekin batera. Gaineratu du, elkarte hori izango dela datozen egunetan, prentsaurreko bidez aurtengo jardueren berri emango duena.

Udal Musika Eskolako kideek urteroko Gabonetako emanaldia eskainiko dute. TXINTXARRI

Erregeek ez dute egingo kalejirarik, baina haurrak bisitatzera etorriko dira. TXINTXARRI

Ohartarazpena eta galderak Udal Gobernuari

Abenduko udalbatzarrean inbertsioak finantzatzeko mailegu eskaera onartu da, baita 2. ordenantza fiskala moldatzea ere. Ordenantza fiskalei egindako alegazioa atzera bota dute. EH Bildu eta ELOPek aurkeztutako mozioak, ordea, ez du udalbatzaren babesa jaso

Txintxarri

Udalbatza osatzen duten alderdiak abenduaren 9an bildu ziren hileroko ohiko bilkura egiteko. Hainbat gai landu zituzten arren, galdera eta erreguen tarteak eman zuen zer esana.

Abenduko ohiko udalbatzarra aurreko saioetako akten onarpenarekin hasi zen. Ostean, bost gai jarri zituzten mahai gainean eta EH Bildu eta ELOP udal taldeek aurkeztutako interes publiko goreneko proiektuen erregulazio berriari buruzko mozio bateratua izan ezik, beste guztiek eztabaida handirik gabe egin zuten aurrera.

Gainera, udal gobernuak EAJren ohartarazpena jaso zuen 2021eko aurrekontuko hainbat inbertsio finantzatzeko mailegua hitzartzeko proposamena jorratzean. Nahiz eta aldeko bozka eman, alderdi jeltzaleko ordezkari Jon Antxordokik azaldu modura, "Ez zaigu gustatu gaia batzarrera ekarri baino lehen, Jaizkibel plazako lanak lizitazioara ateratzea. Badakigu soberakinarekin ordaindu daitekela proiektu horretako lizitazioa, baina ez zaigu egokia iruditzen gaia aurrez aztertu ez izana. EAJ aspertzen, nekatzen hasi da. Ez da posible urtetan horrelako proiektuak atzeratzea. Gauzak egiten hasten dira edo EAJk gobernua babesteari utziko dio".

Aurrekontuak eta Sahara

Jarraian, galdera eta erreguak egiteko txanda izan zuten alderdiek. 2022 urteko aurrekontuaren, herrian dauden lapurreten, OMICeko bulegoaren irekieraren eta 'Oporrak bakean' egitasmoaren diru laguntzaren inguruan erantzun behar izan zuen udal gobernuak.

Aurrekontuen atzerapena ekarri zuen mahai gainera ELOPek. Alkateak zirriborroa landua izan arren, lehengaien prezio igoerak proiektuen aurrekontuetan gorabeherak egotea ekarri dutela azaldu zuen. Ondorioz, udalak horien finantzaketaren berrikuspen bat egin behar izan duela jakitera eman zuen. Aurki azken zirriborroa prest egotea aurreikusten dutela ere aurreratu zuen.

EAJk, berriz, OMICeko bulegoaren lizitazioaren egoera eta herrian egon diren lapurretei buruz galdegin zuen.

OMICeko bulegoa lizitazioan dagoela gogorarazi zuen Sozioekonomiako arduradun Nuria Fernandezek. Gainera, Xabier Egea idazkariak Eusko Jaurlaritzan prozeduraren aurkako errekurtso bat aurkeztu dela jakitera eman zuen. Beraz, horiek ezer ebatzi ezean, prozedurak aurrera egin ezin duela azpimarratu zuen.

Lapurretei dagokionez, udaltzain eta Ertzaintzarekin elkarlanean ari direla aditzera eman zuen udal gobernuak. Agustin Valdivia alkateak Ertzaintza buruari bere kezka agertu eta gaiaren gainean hitz egin duela azaldu zuen.

Azkenik, Saharar Elkartasunaren aldeko azken bi urteetan hitzartutako diru laguntza ez jaso ostean, elkartearekin biltzeko erregua egin zion EH Bilduk.

Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedok eta Ion Murua kontuhartzaileak azaldu zuten zein den dirulaguntzak emateko prozedura eta 2020. urtean dirua ez jasotzearen arrazoia zein den aipatu zuten, azken memoria diru laguntza jasotzen duen espedientearekin bat ez etortzea.

Hala ere, 2021. urtean, hori ez gertatzeko dokumentazio gehigarria eskatu dela eta elkarteak 8.000 euro jasotzeko aukera dagoela jakitera eman zuen Acevedok. Horrez gain, alkateak guztia argitzeko elkartearekin bilduko dela hitz eman zion EH Bilduri.

NEURE KABUZ

GORKA LASA

Olentzerok

Txondorran, 2021eko abenduan

Herritar maiteok:

Dagoeneko hasia naiz zuek igorritako gutunak irakurtzen eta eskaerekin opariak prestatzen: amona Elisarentzat erlojutxoa, aitona Inaziorentzat bufanda goxoa, Oierrentzat bateria, Iratirentzat mikroskopioa...

Ni bizi naizen toki honetatik herri osoa ikusten da, ikuspegi ederra zabalduz begibistara, eta bide batez herritarrok egiten eta esaten duzuenaren berri ere badut. Badakit nor ibiltzen den zintzo eta jator urte osoan zehar, edo opariak jaso asmoz azken unean zurikeriatan ibiltzen dena nor dugun. Aurten tamalez, opariak ez dira urteroko ilusio eta irrikaz eskatutakoak.

Amona Elisak biloben bila garaiz heltzeko nahi du erlojua, haien gurasoak askotan ezin baitira eskolara garaiz iritsi lanaldi luzeen ondorioz; aitona Inaziok koronabirusari dion beldurragatik eraman nahi du bufanda goxoa lepoaren inguruan bi buelta emanda, ahoa eta sudurra ongi baino hobeto estalita; Oierrek bere amorrazio guztia bateria joz askatu nahiko luke, Batxilergoko 2. Ikasturtean, oraindik ez baitu ikusi beste ikastetxe batetik bere gelara etorritako gelakide berriaren begi polit horien azpian nolako irribarrea ezkutatzen den; Iratik etorkizunean zientzialaria izan nahi duelako hasi nahi du mikroskopioarekin lehenbailehen praktikatzen; amak, berriz, ospitaleko lan kargak sortzen dion nekearen lasaigarri gisa, thalasoterapiako bono bat nahi du; eta aitak, nahiz eta aspaldian ezer eskatu ez, oraingoan zumitzezko otartxoak nahi ditu, bere dendako apaletan inguruko baserritarren produktuak jarri eta gehiago sal daitezen.

Aurten, betiko poza baino tristura sentitzen dut zuek elkarrengandik urruntzen ikusita: batzuk ingurukoez eta inguruaz erabat arduratuta eta beste batzuk, aldiz, hain arduragabe eta ezaxola.

Nik, nire aldetik, dakidana eta egin dezakedana egingo dut: natura zaintzen jarraitu, berarekin batera zainduko dugulako geure burua ere.

GORKA LASA | ASIER ODRIOZOLA | GORKA ALVAREZ | JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | JULEN BASTERRA | NEREA SEGURA | LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS

Giza eskubideei buruzko testigantzak

'Ixabelen sukaldea' dokumentala proiektatu dute estreinakoz kultur etxean, Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak antolatuta. Aurretik, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala osatzen duten 30 artikuluak irakurri dituzte ikus-entzunezkoaren parte izan diren zenbait herritarrek

Txintxarri

Abenduaren 10a Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna da. Data esanguratsu hori baliatuta, Lasarte-Oriako Bizikidetza Foroak *Ixabelen sukaldea* dokumentalaren emanaldia antolatu du. Taldeak berak proposatuta, Xuban Intxaustik zuzendu du lana. Hainbat lasarteoriatarren testigantzak biltzen ditu motibazio politikoko indarkeriak eraginda giza eskubideen urraketari buruz. Lekukotza horiek azaroan zehar zabalik egon den *Bizikidetzarako memoria* erakusketaren parte dira eta haren harira antolatutako solasaldietan ere entzun ahal izan dira.



Emanaldiko une bat. TXINTXARRI

Artikulu bakoitzaren edukia euskaraz eta gaztelaniaz agertu da pantailan, kide baten argazki eta izenaren ondoan. Mikro aurrera joan dira, banan-banan, bakoitza irakurtzeko ardura zuena. Alde batetik igo eta bestetik jaitsi dira. Bat baino gehiago irakurri dutenak han gelditu dira zain.

Irakurketa osatuta, emanaldia hasi da. Pantailan agertzen joan dira zenbait datu, mahaia prestatzen zihoazen esku batzuen gainean: Hildakoak, presoak, atxilotuak, ekintzak... Eta ondoren, zenbakiek ezkutatu ohi dituzten ahotsak eta aurpegiak agertzen joan dira.

TXINTXARRI

Eguberrietako erosketetarako

Aterpea merkatarien elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean burututako Ferraren Bila egitasmoko sariak banatu ditu. Makina bat kanpaina egin ditu aurten Aterpeak, tartean, hori: hiru astetan zehar, urrezko zenbait ferra jarri dituzte bazkide diren dendetako erakusleihoetan. Bezeroek horiek topatu, argazkia atera eta Instagram edo Facebook sare sozialetara igo behar zituzten. Parte hartzaile guztien artean zozketa egin, eta hauek irabazi dituzte 500 euroko erosketa txartelak: Laura Hueso, Jone Gonzalez, Esther Sanchez eta Coro Ortega. Saridun bakoitzak hamar euroko 50na bonu jaso ditu. Eguberrietako erosketak egiteko laguntza ederra izango dela adierazi dute lauek.

Bestalde, erakusleiho dotoreenaren lehiaketa egiten ari da Aterpea; hilaren 18an bukatuko da. Bi sari banatuko dituzte: profesionala horietako bat, Rural Kutxak babestua eta epaimahai batek erabakiko duena; eta popularra bestea, udalak babestua eta lasarteoriatarrek erabakiko dutena.

Ondo pasa eguberrietan!

MZUBI

LASARTE-ORIA

Geltoki kalea 21 LASARTE-ORIA

mueblesZUBI@hotmail.com Tel.: 943-36 24 67

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

aldika productos selectos

Industrialdea 19-20 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com

Aurreratu zure eskariak telefonoz edo emailez

Hausnarketa kritiko bat eskaini dio irakurleari

2016. urteko sanferminetan gertatutako talde bortxaketatik abiatuta, 'Nik sinesten dizut' saiakera liburua idatzi du Samara Velte kazetari eta EHUko doktoregaiak. Manuel Lekuona kultur etxean egin du lanaren aurkezpena

Samara Velte (eskuinean) eta Maider Galardi(ezkerrean), solasaldian. TXINTXARRI

Txintxarri

Samara Velte kazetari eta EHUko doktoreak *Nik sinesten dizut* liburua aurkeztu du Lasarte-Orian, hilaren 15ean. Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan egin du, eta Maider Galardi kazetari eta EHUko doktoregai lasarteoriatarra izan du ondoan. Bera arduratu da saioa gidatzeaz.

2016. urteko Iruñeko sanferminetan gertatutako talde bortxaketatik abiatuta, ikuspegi kritiko batetik aztertu du auzia Veltek. Aleka bildumaren zortzigarren liburua da, eta *Berria* egunkariaren, Elkar eta Txalaparta argitaletxeen eta *Jakin* aldizkariaren eskutik argitaratu du. Solasaldi modura hitz egin dute gaiaz.

Ondutako lana ez da duela bost urte gertatutakoaren gaineko kronika liburu bat, sanferminetako bortxaketa kolektiboa ardatz hartuta, indarkeria sexistari buruzko hausnarketa kritiko bat baizik.

Idazleak erakutsi nahi izan du indarkeria sexistak "aurpegi asko dituela" eta horixe bera irudikatu du, esate baterako, liburuaren azalean agertzen den irudi poliedrikoarekin.

Velte eta Galardiren arteko solasaldiaren ostean, hitza hartzeko aukera izan dute bertaratu diren lasarteoriatarrek; denek hitz egin dute. Tarte atsegina zabaldu da; entzule bakoitzak bere hausnarketak eta kezkak mahaigaineratu ditu.

Herrian gertatutako eraso bat salatu dute

Abenduaren 4tik 5erako gauean gertatu dela jakinarazi du aSUnak-ek

Txintxarri

aSunak neska* gazte taldeak abenduaren 4tik 5erako gauean jazotako gertakari bat salatu du. Jakitera eman dute, herriko taberna batean parranda egiten ari zen emakume bat etxe ezezagun batean esnatu zela, erasotzailea ondoan zuelarik. Gaineratu dute gauean "ezezko garbia" eman ziola, baina behin eta berriz hurbildu zitzaiola, deseroso sentiaraziz. Azpimarratu dute gisa horretako erasoak "maiz" gertatzen direla, eta aldarrikatu, kaleak eta gauak eurentzat ere espazio askeak direla, eta saretzen jarraituko dutela erasotzaileei aurre egiteko.

COVID-19ak 2.591 herritar kutsatu ditu

Intzidentzia tasa metatua inoiz baino altuagoa da Lasarte-Orian: 1.281,18 kasu 100.000 biztanleko. Bestalde, herriko taberna, kiroldegi, gimnasio, zahar etxe eta bestelakoak hasi dira Eusko Jaurlaritzaren azken agindura egokitzen eta COVID ziurtagiria eskatzen

Txintxarri

Koronabirusaren seigarren olatuak gogotik busti du Lasarte-Oria. Kutsatzeei eta intzidentzia tasari dagokionez, inoizko kopuru altuenak erregistratu dituzte Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak azken egunetan. Hilaren 15ean, esaterako, 100.000 biztanleko 1.281,18 kasu positibokoa zen intzidentzia tasa. Horrez gain, hilaren 10ean jo du goia egun bakarrean gure herrian atzemandako kasu kopuruak: 52 zenbatu zituzten egun horretan, urri osoko kutsatzeen bikoitza baino gehiago (23 izan ziren).

Hilaren 15era arteko datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak, edizioa itxi aurretik. Hilabete erdian 258 positibo zenbatu dituzte gure herrian, eta bilakaera errotik aldatu ezean, laster gaindituko du 2020ko azaroko marka, 275 kutsatzekoa.

Eusko Jaurlaritzak hala aginduta, gero eta eremu itxi gehiagotan hasi dira eskatzen COVID ziurtagiria: taberna eta jatetxe guztietan, gune soziosanitarioetan, zahar etxeetan, kultur ekitaldietan eta kiroldegi zein gimnasioetan. Kontrara, aire zabaleko kirol ekitaldietan ez da beharrezkoa, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ez baitu baimendu hori.

Eguberrietan, aldaketak

Lasarte-Oriako Udalak agerraldi bat egin du, iragartzeko Eguberrietarako zenbait jarduera bertan behera uztea erabaki duela: San Tomas eguneko azoka, kiroldegiko ur festa eta Olentzero eta Mari Domingiren zein Errege Magoen desfileak. Pertsonaia horiek etorriko dira eta harrera egingo zaie, baina ez ohi bezala.

BIYAK BAT

Felixi Tapia zoriondu dute

Biyak Bat egoitzako zuzendaritzako kideek Felixi Tapia bisitatu dute berriki. Herritarrak 100 urte bete ditu aurten, eta zoriontzera bertaratu dira. "Batzordeko kideak oso pozik gaude Felixi osasuntsu dagoelako; urte askoz gehiago egin ditzala opa diogu". Aurtengo ekainean beste aitortza bat jaso zuen lasarteoriatarrak, Ttakun Kultur Elkarteak udalarekin elkarlanean banatzen dituen Patxintxi sarietako bat irabazi baitzuen. Bestea, Patxi Manchadok.

Bestalde, egoitzako kideek jakinarazi dute lokalean jarri duten jaiotza bedeinkatuko duela Felix Garitano kapilauak hilaren 21ean, eta jarraian, Biyak Bat koruko kideek emanaldia egingo dutela, 18:00etan hasita. Horrez gain, San Tomas eguna denez, aurrez txartelak erosi dituzten bazkideei txistorra pintxo eta freskagarri bana emango diete. Tabernara joan beharko dute, 10:00etatik 20:00etara, mokadutxoa eta edaria eskuratzeko.

Giharrak berotzen hasi dira 22. Korrikarako

Lasarte-Oriako Muntteri-AEK euskaltegia hasi da Euskal Herria alderik alde zeharkatuko duen lasterketa prestatzen, herri mailan. Horrekin batera, jakinarazi du materiala salgai jarri duela Geltoki kaleko 17. zenbakian duen bulegoan

Txintxarri
Ondo bidean, 2022ko udaberrian etorriko da 22. Korrika, Euskal Herri osoa zeharkatuko duen euskararen aldeko lasterketa. Martxoaren 31n hasiko da Amurrion (Araba), eta Donostian amaituko, apirilaren 10ean. Tarte horretan, Lasarte-Oriatik ere igaroko da; egun eta ordu zehatza oraindik jakin ez arren, herriko Muntteri-AEK euskaltegia hasi da giharrak luzatzen eta motorrak berotzen, Iñaki Dorronsoro koordinatzaile eta irakasleak TXINTXARRI-ri adierazi dionez.

Korrika antolatzeko batzordea osatzen ari da, eta jarri da herriko eragileekin harremanetan. "Urtarrilean hasiko gara burubelarri lanean". Elkarteei ez ezik, AEK-k herritarrei eman nahi die aukera prestaketa lanekin bat egin eta euren aletxoa jartzeko. Baten batek interesa balu, Geltoki kaleko 17. zenbakiko bulegora joan edo 943 37 28 63 deitu behar du.

Laguntza ematera bakarrik ez, herritarrak bertara daitezke euskaltegira datorren urteko Korrikako materiala erostera ere. Katalogoko kamiseta, jertse eta zenbait bisera jarri dituzte ikusgai. Edonola ere, denda digitaleko (*www.denda.korrika.eus*) produktu guztiekin eskuorri bat egin dute,

Iñaki Dorronsoro ari da Korrika herri mailan koordinatzen. LASARTE-ORIAKO AEK

bezeroren batek erakusgai ez dagoen zerbait erosi nahiko balu. "Etor daitezela lasai herritarrak, behar duten guztian lagunduko ditugu".

Abestia eta bideoklipa

Korrikaren antolatzaile AEK-k nabarmendu duenez, hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. "Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun proaktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktiraka, jauzi egingo dutenak". 22. Korrikaren leloa bi kontzeptu horien arteko hitz jolasa izango da: Hitzekin. "Hitzetik ekintzetara salto, hitz egin eta ekin; 22. tantoa egiteko unea da".

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko ditu AEK-k 22. edizioan, "34 urteko ibilbidea [Lasarte-Orian sortu ziren, 1987an] egin dutelako euskararen munduan, eta are garrantzitsuago, euskaraz". "Haiek transmisioa goitik behera eta behetik gora landu dute; haiei esker askok ekin diogu, eta datozen belaunaldiek ere ekingo diote".

Euskarazko produktuen katalogo berritua aurkeztu dute

Lasarte-Oriako Udalak eskuorriaren ale bat igorri du 16 urtez azpiko pertsona bat bizi den etxebizitza guztietara

Txintxarri
Eguberriak iristear daude, eta garai aproposa da seme-alabei edo ingurukoei euskarazko produktuak oparitzeko. 23. urtez, katalogo bat osatu dute Euskal Herriko 100 bat udal eta mankomunitatetako euskara zerbitzuek, baita Lasarte-Oriakoak ere. Edukiak bi ataletan antolatu dituzte: 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin bata, eta 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin bestea. Papereko zein sareko edizioak prestatu dituzte.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak jakinarazi du 16 urtez azpiko pertsona bat bizi den etxebizitza guztietara igorri duela paperezko katalogoaren ale bat. Edonola ere, eskuorri horrek ez ditu jasotzen *Katalogoa.eus* webgunean zerrendatzen diren 2020ko produktu guztiak, atalka antolatutako hautaketa bat baizik: DVD filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala. Atari digital hori "etengabe" berritzen ari dela azpimarratu du Euskara zerbitzuak.

TXINTXARRI

"Oso pozik" abestu dute

Danok Kide elkarteak antolatuta, Donostiako Iesu abesbatzak emanaldia egin du Ama Brigitarren komentuan. Pandemia tarteko, bi urte atzeratu behar izan du kontzertua Marina Lerchundik zuzendutako taldeak, horregatik, Lasarte-Orian abestu ahal izateagatik "oso pozik" daudela adierazi dute. Errepertorioko abesti gehienak ate joka dauden Eguberriei lotuak izan dira: *Aingeru batek, Gabaren erdian, Noel Noel, Ator ator...*

Egoeraren menpe daude Gabonetako txapelketak

Kirol ekimenak bertan behera geratzearen arriskuaz jakitun, Gabonetako 3x3 Saskibaloi lehiaketa eta San Silvestre lasterketa antolatzeko pausoak eman dituzte kirol erakundeek. Alabaina, abenduaren 15ean, San Silvestre lasterketarik ez dela izango jakitera eman dute

Gabonetako 3x3 txapelketak saskibaloiez beteko du kiroldegiko kantxa. TXINTXARRI

Ez dira mozorroak kalean izango, baina zozketak iragarri dituzte San Silvestreko kideek. TXINTXARRI

Txintxarri

Lasarte-Oriako Gabonetako ekimenen artean, hiru kirol jarduera nagusi egin ohi dira: Eguberrietako 3x3 Saskibaloi Txapelketa, Gabonetako Areto Futbol Txapelketa eta San Silvestre lasterketa. Pandemia egoera dela eta, 2020 urte amaieran ez ziren antolatu eta aurten Gabonetako 3x3 Saskibaloi Txapelketak bakarrik egingo du aurrera, oraingoz.

Ostadar Saskibaloi atalak zortzigarren urtez antolatuko du norgehiagoka. Endika Marrahi arduradunak azaldu duenez, "guk txapelketa antolatzeko asmoa dugu, baina bertan behera geratu daiteke. Egoera aztertu eta aurrera egiten badugu, garaian garaiko neurriak bete beharko ditugu". Guztia ongi bidean, abenduaren 26a, igandearekin, Maialen Chourraut kiroldegiko kantxa saskibaloi zalez beteko da.

Maila ugaritako lehiak ikusi ahalko dira. Beraz, 2012-2013 urteko gaztetxoetatik helduetara –2003 urtetik gorako jokalariak– saskibaloiaz jokatu eta gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

Ordutegi ezberdinetan lehiatuko dira. Goizean, esate baterako, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako partidak jokatuko dira. Arratsaldean, berriz, gainerakoak.

Izena ematea

Txapelketan parte hartzeko hiru edo lauko taldeak osatu behar dira. Taldeen arabera, gizonezko zein emakumezko lehia izango da eta talde mistoek gizonezkoen mailan parte hartuko dutela jakitera eman dute.

Abenduaren 23ra arte egongo da izena emateko aukera Ostadarreko webgunean zein sare sozialetan. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, Saileko arduradun Endika Marrahirekin harremanetan jarri behar da, 677 16 37 51 telefono zenbakian.

Osasun neurriak

Marrahik aipatu modura, pandemiaren egoraren araberako neurriak jarraitu beharko dituzte parte hartzaileek. "Distantziak gorde eta jokatzen ez den bitartean maskara jantzita izan beharko dute jokalariek. Indarrean dauden neurrien arabera, gainerako azalpenak egunean bertan eskainiko zaizkie taldeei", aipatu du saskibaloi txapelketako arduradunak.

Bestalde, txapelketa ikustera joan nahi duten herritarrak ohartarazi ditu: "Egungo legearen arabera, ikusleek kiroldegian sartzeko COVID ziurtagiria beharko lukete. Oraindik ez dugu udalaren inongo oharrik jaso horren harira, baina litekeena da ikusleek agiria behar izatea".

Bertan behera

Gabonetako Areto Futbol txapelketa eta San Silvestre lasterketa, ordea, ez dira antolatuko.

Abenduaren 15ean iragarri dute antolatzaileek San Silvestre lasterketa bertan behera geratu dela. Zabaldu duten oharrean jakitera eman dutenez, probaren antolakuntzan murgilduak egon dira azken asteetan eta hasiera batean aurrera egiteko intentzioa zuten. Halabaina "egoerak eta bizi dugun COVID olatu berriak lasterketarekin aurrera ez jarraitzea eskatzen digu" adierazi dute.

Tristea da eurentzat bigarren urtez jarraian erabaki hori hartu behar izatea: "Pena handiarekin baina guztion hobe beharrez zentzuzkoena proba bertan behera uztea dela erabaki dugu".

Garai hobeak iritsi eta hurrengo urtean, Lasarte-Oriako kaleetan zehar korrikalariez, mozorroez eta jai giroaz gozatzeko aukera izatea espero dute San Silvestre lehiaketako antolatzaileek.

Baina bitartean ez dira besoak uztarturik gelditu eta lasterketako giroa herrira zabaltzeko ekimenak egingo dituzte. Iaz mozorro lehiaketa antolatu zuten eta, aurten "egoera garratz honi gozo puntu bat emateko", hainbat opariren zozketa egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek. Hurrengo egunetan emango dute horien berri euren webgunean (*www.sansilvestrelasarteoria.com*) eta Facebook orrialdean (*@SanSilvestreLasarteOria*).

Eguzki Areto Futbola klubak, berriz, azaroa amaieran "pena handiz" lehiaketa antolatzeari uko egingo ziola jakitera eman zuen.

Herriko kirolarien jarduna saritzeko gala

Lasarte-Oriako Udalak Manuel Lekuona kultur etxean egingo du aurtengo Kirol Gala. Kirolari Onenak Sariak banatzeaz gain, herritarrek egiten dituzten kirol jardueren erakusle den iragarkia ere aurkeztuko dute. Herritarrak eta kirol elkarteak gonbidatu ditu udalak ekimenera

Txintxarri

Abenduaren 17an, arratsaldeko zazpietan Lasarte-Oriako Kirolaren Gala egingo da Manuel Lekuona kultur etxean.

2015. urtean banatu zituen Udalak lehenengoz Kirolari Onenen sariak eta helburua Lasarte-Oriako kirolari eta kirol elkarteek egiten duten lana goraipatzea da. Kirolaren Galaren aurkezpenean Txus Alonso Kirol batzordeburuak azaldu modura, "sariak banatuko ditugun seigarren urtea da. Iaz pandemia dela eta, kirol jarduera etena egon zenez, ezin izan genuen egin. Baina aurten, berriro ere, kirolarien lana sarituko dugu".

Kirolari Onenaren Sariko prozedura azaldu eta aurtengo sarituak jakitera eman dituzte. Emakumezkoen saria Ostadar Atletismoa saileko Naroa Furundarena Urkolak jasoko du. Gizonezkoen saria, berriz, Beltzak RTko harrobiko errugbi jokalari den Alex Saleta Atorrasagastik eskuratu du. Ibilbidearen sariari dagokionez, bi sari banatuko dira *ex aequo*. Sarituak errugbi jokalari ohi eta entrenatzaile den Francisco Jose Puertas Soto eta Carlos Rodriguez Gobernado arrantzalea dira.

Udal ordezkariak Kirol Galaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Berrikuntza modura, aurten sari banaketa Manuel Lekuona Kultur Etxera lekualdatu dutela nabarmendu dute.

Gala, Manuel Lekuonan

"Udaletxean senide eta herritar gutxi batzuk sartzen ziren. Leku aldaketarekin herritarren eta beste kirol elkarteen babesa eta beroa senti dezaten nahi dugu", adierazi zuen agerraldian Alonsok.

Horretarako, herriko kirol elkarteez, sarietako hautagaiez eta sarituen senideez gain, herritarrak gonbidatu dituzte ekitaldira. Gonbidapenak Manuel Lekuona Kultur Etxean jaso ahalko dira.

Leku aldaketa horrek ere galaren formatuaren moldaketa ahalbideratuko du, Kirol arduradunak azaldu zuenaren arabera. Era horretara, Kirol Galaren barruan, LOKEko gimnastikako taldeko erakustaldiaz gozatuko dute eta udalaren eskaerari erantzunez David Sanchez Carretero herritarrak Lasarte-Oriako eta herritarrek egiten dituzten kirol jardueren erakusleiho izango den iragarkia ere estreinakoz ikusiko dute.

Galari garrantzi handiagoa emateko, gainera, Kale Nagusian jarri diren banderolak ekarri dituzte gogora udal ordezkariek. "2015. urtetik sarituak izan diren kirolariak agertzen dira bertan. Euren lana aitortzeaz gain, egiten dituzten modalitateei ere ikusgarritasuna ematen zaie. Gure herritarrek 30 kirol diziplina baino gehiagotan parte hartzen dute denboraldiro", azaldu du Alonsok.

Azkenik, Agustin Valdivia alkatea harro agertu da herriko kirolariek egindako lanaz eta herritarrak gonbidatu ditu hilaren 17ko Kirol Galara joatera.

Chourraut eta Zudaire (lehen lerroan, ezkerreko bigarren eta hirugarren) gainerako saritu eta omenduekin. GIPUZKOA KIROLA

Herriko olinpiarrek, oroigarria

Ez da Lasarte-Oriakoa urteko azken aste hauetan egingo den Kirol Gala bakarra izango. Gipuzkoako Foru Aldundiak, esate baterako, abenduaren 10ean egin zuen Tabakaleran (Donostia) Gipuzkoako Kirol Gala. Lurraldeko hainbat kirolariren eta kirol elkarteen jarduna saritu zuen.

Urteko ibilbide onenaren Gipuzkoa Kirola Sariak Maite Maiora ultra traileko korrikalariak eta Ander Elosegi piraguistak jaso zituzten; Unai Saralegi eta Unai Reguillaga judokek, berriz, herritarren bozken bidez erabakitako Gipuzkoarren Saria. Sari horretako hautagai zen Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezo kidea, baina ez zen posible izan.

Hala ere, Zudaire ez zen ekimenetik esku hutsik joan Tokioko 2020 Olinpiar Jokoetan zein Paralinpiar Jokoetan lehiatu ziren hamalau kirolariei oroigarria banatu baitzien Abraham Olano txirrindulari-ohiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean. Horien artean, Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina eskuratu zuen Maialen Chourraut lurramendi herritarra ere izan zen.

Eguberri on eta 2022 zoriontsua opa dizuegu!

ZUBIETA MOTOR

• Mekanika eta karrozeria konponketak
• Auto erdiberri, erabili eta 0KM salmenta

Ford HYUNDAI mazda CITROËN FIAT KIA ABARTH PEUGEOT

Oria Etorbidea 4, 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943-36 00 09 - Faxa: 943-37 26 89 - zubietamotor@centrauto.es

Zudaire eta Imazek, emaitza onak Castellon

Nazioarteko igerilarien aurka lehiatu dira Buruntzaldea IKTko Nora Imaz eta Nahia Zudaire Castalia Castello Nazioarteko Sarian eta zehaztutako helburuak bete dituzte igerilariek. Abenduaren 17an, lau hitzordu dituzte Buruntzaldea IKTko kideek

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Borrezo eta Nora Imaz Igea Espainiako igerilari onenen aurka lehiatu dira Castalia Castello Nazioarteko Sarian abenduaren 3tik 6ra. Igeriketa taldeko kideek euren helburua bete dute: Zudairek 2022ko igeriketa egokituko Munduko Txapelketarako sailkapena lortu du; Imazek, berriz, bi marka pertsonal ondu ditu.

Imazek Gipuzkoako Selekzioaren izenean parte hartu zuen estiloko hiru probatan: 200 m., 400 m. eta 800 m. Ederki egin zuen igeri eta 200 m. eta 800 m. probetan, gainera, bere marka pertsonala ondu zuen. Marka berriak honakoak dira: 200 m. libreak, 02.17,07 eta 800 m. libreak, 09.48,78. 1.500 metroko proban lehiatzekoa bazen ere, azkenean ez zuen egin.

Nora Imaz Igea 2020ko Distantzia Luzeko txapelketako irudian. TXINTXARRI

Zudairek, berriz, igeriketa egokituko bi proba jokatu zituen: tximeleta eta estilo libreko 100 metro. Denboraldiko lehen lehiaketa izan arren, goiko postuetan sailkatu zen eta lortutako markei esker, urteko helburua lortu du dagoeneko Buruntzaldea IKTko igerilariak: 2022 urtean Funchalen (Portugal) ospatuko den Munduko Txapelketarako sailkapena. Tximeleta proban, bigarren postua eskuratu zuen 01.22,31 marka eginez eta 100 m. libre proba 01.09,43 markan amaitu ostean, podiumeko hirugarren mailara igo zen Zudaire.

Igerilekua itxita

Castelloko esperientziaren ostean, abenduaren 18an, lehiatuko dira berriro ere Imaz eta Zudaire. Imazen kasuan etxean izango da, gainera. Maialen Chourraut kiroldegian Distantzia Luzeko Euskal Herriko Txapelketa antolatuko du Buruntzaldea IKTk eta igerilari gazteak absolutu mailako 3.000 metroko proban parte hartuko du. Iaz podiumera igo zen eta aurten ere lehen postuetan egoten ahaleginduko da.

Ondorioz, Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakitera eman du, abenduaren 18an, larunbata, goizeko 09:00etatik 14:00etara igerilekua itxita egongo dela. Erabiltzaileak Andoain, Usurbil eta Urnietako igerilekuetara joan daitezkeela ere gogoratu dute.

Zudairek, berriz, Oviedora egingo du bidaia VIII Open Internacional Mareastur de Natacion Adaptada sarian parte hartzeko.

Bestalde, abenduaren 11n kiroldegiko igerilekuan jokatzekoa zen Alebin Ligako 3. jardunaldia bertan behera geratu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak eguraldia dela eta alerta laranja ezarri zuen eta Eskola Kiroleko jardunaldia eten zen.

Igeriketa taldeko txikiek, ordea, abenduaren 18an arratsaldean euren aurrerapausoak erakusteko aukera berri bat izango dute benjaminekin batera, 21. Paco Sanchez Sarian.

Azkenik, infantil, junior eta absolutu mailako igerilariek Neguko Ligako 4. jardunaldia jokatuko dute Hernanin.



ILLARRETA
ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA

BULEGOA
Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943-36 31 47 eta 943-36 17 52

info@illarreta.com



TAILERRA
Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943-33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak
- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua

Errugbiko taldeek, aurpegia eta gurutzea

Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak garaipena erdietsi du; Ohorezko B Mailako taldeak, berriz, Ourenseren aurka galdu du. Emakumezkoen Euskal Ligan, sailkapeneko buru diren Hernani eta Gaztediren arteko lehia izan da

Txintxarri

Gesalaga Okelan Zarautz taldeko Ohorezko B mailako eta Euskal Ligako taldeek euren ligetako jardunaldia jokatu zuten abenduaren 12an, Astin.

Euskal Ligako taldeak Domiberia RC Rioja izan zuen aurkari. Nagusi izan zen etxeko taldea eta 43-7 irabazi zuen partida.

Ohorezko B mailako taldeari, ordea, garaipenak eskuetatik ihes egin zion. Campus Universitario Ourenseren aurkako partida borrokatua izan zen eta bigarren zatian 17-14 aurretik jarri arren, azkenean galiziarrek eraman zuten saria, 17-21.

Bi partiden artean, Zarautz Errugbi Beltzak errugbi taldeak Alex Saleta Atorrasagasti omendu zuen. Taldeko jokalari zein zuzendaritzako kideek oroigarri bat eman zioten herritarrari.

Saletak 20 urtez azpiko Europako txapelketa irabazi berri du Espainiako errugbi XV selekzioarekin.

Herritarrak aurrez aurre

Emakumezkoen Euskal Ligan, sailkapeneko lehen bi postuetan dauden Cominter Tisu Hernani eta Vithas Gaztedi taldeen arteko neurketa izan zen, Gasteizen.

Bi taldeetan herritarrak izan ziren aurrez aurre; Hernaniko taldean Paola Vega Santos eta Gasteizko taldean Aizpea Racamonde Mendiluce. Racamondek lehen urtea du errugbian jokatzen eta pixkanaka lekua egiten ari da taldean.

Lehia handiko partida izan zen eta entsegu gutxi ikusi ahal izan ziren. Atsedenaldian Hernani 5-7 garaile bazen ere, Gaztedik bigarren zatiko entsegu bakarra egin eta partida eta sailkapeneko burua eskuratu zituen, 10-7.

Bestalde, Nerea Loyarte Mayoz herritarrak Gaztela eta Leongo Ligan egin zuen debuta. Albeitar Leon Rugby Club taldean jokatzen du eta CDU Salamanca taldearen aurkako neurketan jokatu zuen estreinakoz.

Erroibide Urbycolanek ez dio aukerarik eman Ostadarri

2. Senior Mailako partidan, sailkapeneko buru den Irungo taldeak sendo jokatu du eta 26-79 gailendu da

Txintxarri

Partida zailari aurre egin behar izan zion Ostadar Saskibaloia taldeko 2. Senior taldeak abenduaren 11n. Ligako buru den Erroibide Urbycolan taldea zuen aurkari.

Partida hasieratik bi taldeen arteko maila desberdintasuna agerian geratu zen. Hala ere, urdin-beltzek ongi eutsi zioten erasoei eta lehen laurdena 6-15 amaitu zuten.

Bigarren laurdenetik aurrera, ordea, Erroibidek bere nagusitasuna erakutsi zuen. Partidaren erritmoa ezarri zuen. Euren joko sendoari eta hiruko jaurtiketei esker tartea handitu zuen.

Ostadarrek, aldiz, aukera gutxi sortu zituen eta saskira iristean ere, arazoak izan zituen puntuak lortzeko. Ondorioz, etxeko taldeak ezin izan zuen ezer egin; Erroibidek 26-79 irabazi zuen neurketa.

Jokalariak errebotearen zain. TXINTXARRI

Emaitzatik haratago 2. Seniorreko entrenatzaile Gaizka Urreizti pozik dago taldeak egindako lanarekin: "Zaila zen eurei irabaztea. Gure lehen urtea da mailan. Asko dugu ikasteko eta lanean jarraitu behar dugu partidak irabazteko".

Euskal Ligako taldeak, gorabehera handiak sakean

Ostadar Boleibola saileko senior taldeak partida borrokatua jokatu arren, Ibararteren aurka 2-3 galdu du

Txintxarri

Boleiboleko Euskal Ligako neurketa lehiatua izan zen Maialen Chourraut kiroldegian, abenduaren 11n. Ostadar Boleibola saileko seniorrek Ibararte izan zuen aurrez aurre.

Nahiz eta borrokatu, talde urdin-beltzak ezin izan zuen garaipena erdietsi. Ibarartek 2-3 (14-25; 25-17; 14-25; 25-19 eta 7-15) irabazi zuen.

Asier Acuriola entrenatzailearen hitzetan, "borrokatu izan arren, Ibararteren aurkako partida ez zen bereziki ona izan. Sakeko hutsen arabera gorabeherak izan zituen neurketak eta akatsek irabazitako tantoak gainditu zituzten bi taldeetan".

Denboraldi honetan partida bakarra irabazi badu ere, Euskal Ligako lehen urtea duela nabarmendu du taldeko prestatzaileak, baita jokalariak maila berrira moldatzeko "gogoz eta gogor" entrenatzen ari direla ere.

Senior taldeko jokalaria erremate bat egiten. TXINTXARRI

Intza, ezin Gipuzkoako txapelketako finalerako sailkatu

Banakako txapelketan ere, kirol elkarteko jubenil zein kadete mailako pilotariek ez dute aurrera egin

Txintxarri

Gipuzkoako Binakako txapelketako Nagusien 3. Mailako Intza-LAPKE finalerdia jokatu zen Michelin kirol guneko pilotalekuan abenduaren 4an. Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak ezin izan zuten finalerako txartela eskuratu. LAPKEk nagusitasunez jokatu zuen eta ez zion aukerarik eman Intzako bikoteari partidari itzulia emateko; 7-22 gailendu zen.

Intzako kideek aurreratu bezala, ez zen partida erraza izango "aurkaria maila onean ari baitzen lehian".

Herriko pilota elkarteko kideek, ordea, ez zuten emaitza hori espero. "Sendo jokatu dute. Konturatu orduko ihes egin dute eta ezin izan dugu ezer egin", azaldu du Artetxe jokalariak.

Atsedena

Banakako lehia ere amaitu dute Intzako pilotariek. Haritza Diaz de Gereñu jubenilak eta Beñat Olazabal kadeteak ezin izan dute lehen fasea gainditu. "Bagenekien sailkatzea zaila izango zela, gure helburua pilotariek maila onean lehiatzea zen eta esperientzia hartzea", adierazi du Jose Felix Solano prestatzaileak.

Intzako nagusien bikotea, lehen faseko partidan lehian. TXINTXARRI

Intzako pilotariek urtarrila amaiera arte izango dute akatsak zuzendu eta fin jartzeko. Intzako arduradun Solanok aurreratu duenez, jubenil eta kadete mailako gazteek bi hitzorduri egin beharko diote aurre: Trinketeko txapelketa eta Udaberri txapelketa. Bietan binakako modalitatean parte hartuko dute.

Ostadar SKTko jokalaria eta Astigarragako Mundarroko jokalaria borrokan. TXINTXARRI

Akatsak erabakigarriak, Jubenil Ohorezkoaren partidan

Astigarragako Mundarrok 0-2 irabazi dio Ostadar SKTren taldeari

Txintxarri

Ostadar SKT Jubenilen Ohorezko Mailak partida serioa jokatu arren, ezin izan zuen Astigarragako Mundarro garaitu. Abenduaren 11n, Michelin kirol guneko zelaian jokatu zen norgehiagokan akatsek erabaki zuten partidaren patua.

Jubenilen Ohorezko mailako taldearen prestatzaile Koke Arzallusek azaldu duenez, "gure jokalariak ederki jokatu ziren. Aukerak sortu genituen, baina denboraldi hasiera honetan kostata egiten dugu gola".

Talde urdin-beltzeko arduradunak nabarmendu duenez, ez zen galtzeko partida. Tamalez, Ostadarreko defentsaren hutsez ongi baliatu zen Astigarragako Mundarro partida eskuratzeko. "Aurkariak ez zuen aukerarik sortu. Gure akatsak izan ziren. Lehen gola gure atean sartu genuen, eta bigarrena, defentsa akats baten ondorioz etorri zen", azaldu du Arzallusek.

Mailara moldatzen

Denboraldia zaila izaten ari da taldearentzat jubenilen entrenatzailearen hitzetan: "Mailara egokitzen ari gara eta partida zailak izan ditugu. Gogorra da jokalarientzat. Gehienentzat lehen edo bigarren urtea da eta ez dute esperientziarik".

Nahiz eta emaitzak lagun ez izan, jokalariak gogotsu daudela nabarmendu du entrenatzaileak: "Kontziente dira ditugun akatsez. Entrenamenduetan ere ederki ari dira lanean. Talde ona dugu eta gogoak dituzte".

Horregatik, helburua maila mantentzea da. Zazpi partida geratzen zaizkie lehen fasea amaitzeko; horiek bigarren fasean "%100a emateko bloke sendoa bilatzeko" baliatuko ditu Arzallusek.

Julen semeari izan duen gaixotasuna "modu erraz batean" kontatzeko idatzi du Laura Huesok Otsoa ipuina. LAURA HUESO

Semeari jasan duena azaltzeko

LAURA HUESO ALVIZ 'OTSOA' LIBURUAREN IDAZLEA

'Otsoa' izeneko ipuina idatzi du lasarteoriatarrak. Semeari, hiru urte zituela diagnostikatu zioten leuzemia, eta bizitakoa azaltzeko sortu du kontakizuna

Txintxarri

Juleni, pairatu (eta gainditu) duen gaixotasuna kontatu nahi zion bere ama Laura Hueso Alviz-ek (Lasarte-Oria, 1979), eta pentsatu zuen, aukerarik onena ipuin baten bitartez egitea izan zitekeela. Leuzemia diagnostikatu zioten semeari hiru urte zituela, eta, orain, noizbehinkako kontrolak egiteko baino ez du joan behar ospitalera. Bi urte eta erdiko borroka "luzea" izan da, ordea. Egonaldi luzeak egin behar izan dituzte ospitalean, eta bizipen haietatik abiatuta hezurmamitu du *Otsoa* izeneko liburua; semeari une hartan gertatzen ari zitzaiona "modu erraz batean" azaltzeko helburuarekin idatzi du.

Ez da kasualitatea aipatu animaliari erreferentzia eginaz titulua jartzea liburuari. Julenek ospitaleko bere gelako atean, izen-abizenen ondoan jarrita izan zuen bere argazki bat. Baina ez hori bakarrik; marrazki bat ere bai. Ez edozein, ordea; otso batena baizik. Garai hartan "oso gustuko" zuen animalia hori; otsoak agertzen ziren ipuinak kontatzen zizkiola gogoan du amak. Horrela, animalia horretatik abiatuta hasi zen ipuina idazten. Danborrada ere atsegin du Julenek eta danborraren irudia erabili du Huesok giza-bihotza irudikatzeko. Ardiek ere badute protagonismoa kontakizunean.

SEMEA "POZ-POZIK" DAGOELA AITORTU DU IDAZLEAK; "ILUSIOZ" BIZITZEN ARI DELA ARGITALPENA

Idazleak etxeko leihotik egunero-egunero ikusten dituenak dira, eta globulu gorri, zuri eta plaketak irudikatzen dituzte. Hiru elementu horiei erreferentzia eginaz hasten da *Otsoa*.

Kontatzen du, danborrean (hezur-muinean) sortzen diren ardiak (globulu gorri, zuri eta plaketak), *tam-tam* egiten duen bihotz taupaden erritmora mugitzen direla. Halako batean, ordea, zuri koloreko arditxoak itxura aldatzen hasten dira; buztantxoa luzatu eta masailetik ile luze beltzak ateratzen zaizkie: otso bilakatzen dira (minbizia). Irakurketaren aurrera egin ahala, ikus daiteke ardiei eraso egitea dela animalia basatia horren helburua eta arditxoak desagerrarazten dituela apurka-apurka. Gorputzak, ordea, bizitzeko beharrezko ditu ardiak, eta horiek salbatzera agertuko da bat-batean lehoi indartsu bat (tratamendua), otsoari aurre egin eta bizirik geratzen diren arditxoak salbatuko dituena. Poliki-poliki gorputza indarberritu eta arditxo berriak jaiotzen dira, guztia, berriz ere bere onera itzuli arte; sendatu arte.

Hasieran, etxekoentzako

Duela bi urte eta erdi hasi zen testua idazten, "Julen tratamentuan zegoela", baina jakinarazi du, sortze prozesuak ez duela erabateko jarraikortasuna izan: "Alde batera utzi behar izan nuen egunerokoa zailtzen zen uneetan. Gerora koronabirusa ere etorri zen eta ez da lan erraza izan, baina hau ere egin dugu". Dena den, uste du argitaratu zitekeen "momentu onenean" kaleratu dela: "Julen sendatuta dago eta ni sendo. Oso momentu ona bizitzen ari gara; gauza bakoitza behar den momentuan gertatzen da".

Hasieran, "etxekoentzako, argitaratzeko inolako asmorik gabe" idatzi bazuen ere, ingurukoek animatuta erabaki du zabaltzea: "Aurretik irakurtzeko aukera izan dutenek bultzatuta hartu dut erabakia". Idatziari irudiak jarri eta maketazioa egiteko gertukoen laguntza ere izan du: "Lagun batek esan zidan egingo zizkidala marrazkiak, eta beste batek esku bat botako zidala diseinuarekin; horrelaxe osatu dugu *Otsoa*".

Bi hizkuntzatan

Ipuina bi hizkuntzatan irakurtzeko aukera izango dute irakurleek: euskaraz eta gazteleraz. Hori, noski, idazlearen hautua izan da: "Lasarte-Oriako haur ia gehienek euskaraz badakiten arren, guraso asko ez dira hizkuntza horretan moldatzen, eta denek irakurri eta istorioaren berri izateko idatzi dut bi hizkuntzatan".

Ahalik eta irakurle gehienengana iritsi nahi du Huesok, batez ere, gaixotasunaz hitz egin dadin: "Uste dut jendeak beldur handia diola minbiziari, eta gaiaz hitz egitea lagungarria dela. Niretzat, behintzat, hala izan da". Aitortu du semeak leuzemia zuela jakinarazi ziotenean "mundua eten egin zela" sentitu zuela, baina bizipenak elkarbanatzeak asko lagundu diola. Gogoan izan ditu une haietan ondoan izan zituztenak: "Sekulako babesa eta maitasuna eman ziguten senide eta lagunek; zorretan nengoela sentitzen nuen. Laguntza handia izan genuen eta orain, nik liburu hau behar dutenentzat lagungarri izatea nahiko nuke".

Julen "poz-pozik"

Semeari ipuina "asko" gustatu zaiola kontatu du Huesok, eta gaineratu, harrituta dagoela: "Ez zuen espero liburu bat sortuko nuenik bere gaixotasunaz hitz egiteko. Lotsati samarra da. Ez zaio protagonista izatea gustatzen, baina poz-pozik dago egin dugun lanarekin. Sasoeta ikastetxean ikasten du, eta bertako ikasleen irratsaioan parte hartzeko deia jaso nuela kontatu nionean famatua nintzela esan zidan. Ilusioz bizi du".

Irakurle eta herritarrengandik ere "sekulako erantzuna" jasotzen ari dela azpimarratu du: "Harrituta nago, izugarria izaten ari da, ez nuen inondik inora imajinatu hainbesterako izango zenik, lehertzear daukat sakelakoa. Familietan gaiaz hitz egiten ari dela ikusten ari naiz, eta erabateko betetasuna sentiarazten dit horrek".

Erosketa puntuak

Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteko kide da Montejo-Hueso familia. Parte direnei laguntza psikologikoa, babes emozionala eta gizarte laguntza ematea du helburu elkarteak, eta hura laguntzea da *Otsoa*ren beste xedeetako bat. Liburuaren erosketarekin lortutako dirua bertara bideratuko dela iragarri du idazleak. Erosi nahi duenak Lasarte-Orian bertan egin dezake. Sasoeta auzoan badago Carretero izeneko paperdenda bat eta bertan salgai dago. Bestalde, Zumaburuko estakoan ere eros dezakete interesa dutenek. Zortzi euro balio ditu.

IPUINAREN EROSKETAREKIN ASPANOGI ELKARTEA LAGUNDUKO DELA AZALDU DU HUESOK

Eskola Kirola egitasmoak ere ospatuko du Ttakunen urteurrena

Michelin kirol gunean elkartuko dira gaztetxoak eta begiraleak; gonbidatu berezi batzuen bisita jasoko dute

Txintxarri

Duela hilabete pasatxo bete zituen Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte, eta orduan gogotik ospatu bazuen ere, oraindik ez da guztiz ase. Beste hainbat egitasmoren artean, Eskola Kirola kudeatzen du, eta programa hori izango da urtemuga berezi hori ospatuko duena, topaketa berezi baten bidez. Hilaren 18an egingo dute, 09:00etatik 11:30era, Michelin kirol gunean. Proiektua dinamizatzeaz arduratzen den Ainhoa Ortiz de Urbinak TXINTXARRI-ri adierazi dionez, "gogo eta ilusio handiz" ospatuko dituzte Ttakunen hiru hamarkadak. "30 urte ez dira egunero betetzen: gure txikiekin elkartuko gara, eta kirolaz gogotik gozatuko dugu". 09:00etatik 10:15era LH 1 eta 2 mailetako gaztetxoak ariko dira, eta 10:00etatik 11:30era, LH 3 eta 6 artekoak.

Beste hainbat esparru bezala, koronabirusak eragin nabarmena izan du Eskola Kirolan, baina, neurriak neurri eta mugak muga, lortu dute topaketa antolatzea. Hauxe aurreratu du Ortiz de Urbinak: "Argazki masiboa aterako dugu, eta herriko zenbait kirolari bertaratuko dira Michelinera". Arduradunak azpimarratu du taldeak itxita daudela, eta haurren guraso eta ahaideek ezingo dutela kirol gunera sartu, "osasun neurriak errespetatze aldera".

Materiala, salgai

Beste zenbait ospakizun jardueratan bezala, Ttakunek postua jarriko du hilaren 18ko topaketan, Michelin kirol gunearen kanpoaldean, goizean zehar. Poltsak, motxila poltsak eta kantinplorak erosi ahalko dituzte herritarrek.

Eusko Jaurlaritzako HPS saileko Euskara Sustatzeko zuzendari Estitxu Alkortak (goian) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari Garbiñe Mendizabalek jaso dituzte oroigarriak, Ttakun KEko kudeatzaile Haritz Salaberriaren eskutik. TXINTXARRI

Oroigarri bana Jaurlaritzari eta Aldundiari

Ttakun Kultur Elkarteak 30 urte bete ditu aurten, eta gogotik ospatu du azken hilabeteetan. Herriari eta elkarteei ez ezik, hiru hamarkada hauetan bidelagun izan dituen erakundeei eskerrak eman dizkie, eta elkartearen izenaren jatorri den egurrezko txalaparta bana oparitu Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Elkarteko kudeatzaile Haritz Salaberria Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendari Garbiñe Mendizabalekin eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza eta Politika Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendari Estitxu Alkortarekin bildu da, oroigarriak banatu eta aurrerantzean ere elkarlanean jarraitzeko asmoa azaltzeko.

Ttakun Kultur Elkartea

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen KUIKUI ipuina + diskoa zozketatuko dugu.

Eman izena abenduaren 23a baino lehen *harpidetza@ttakun.eus* helbidean, 943-37 14 48 zenbakira deituta edo 646 82 44 66 Whatsapp-ean.

@TtakunKE

Ttakuneko bazkide izan nahi baduzu sar zaitez: ***www.txintxarri.eus/bazkidetu***

SUGATE

SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Ondo pasa eguberrietan!

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | *www.sugatecocinas.com*

Pandemia garaian sortutako kezka bati erantzunez sortu dute fanzinea herriko bost gaztek, horietako bat, Jon Susin. TXINTXARRI

"Sistema honek burua eta bizitza lainotzen ditu"

Lasarte-Oriako gazte talde batek 'Nubes de caucho' fanzinea abian jarri du. Antolaketa politikorako tresnaz gain, gogo artistiko bat asetzeko bidea ere bada argitalpena. Lehen zenbakia urrian kaleratu dute eta Oreka tabernan eros daiteke

Maitane Aldanondo

Itxialdiak arazo eta gabezia ugari azaleratu zituen moduan, haiei aurre egiteko saiakeren loraldia ere ekarri zuen. Batzuk, berehala ernatu ziren, beste batzuen haziak, berriz, denbora gehixeago behar izan du fruitua emateko. *Nubes de caucho* fanzinea azken horietako bat da, urrian, uzta garaian, kaleratu baitute lehen zenbakia. Bost gazte lasarteoriatarren ekimena da, gaztetxeko "militante ohiak". Haietako batek, Jon Susin (Atsobakar, 2000), azaldu dizkio TXINTXARRI-ri argitalpenaren xedea eta nondik norakoak.

Krisiak eragindako zenbait neurriren eta bizi baldintzen okertzearen testuinguruan, beharrezkotzat jo zuten "antolakuntza politiko independente bat, langile klasearen interesei erantzungo diena". Gaztetxea galduta, hori sustatzeko lehen pausoa eztabaidarako espazio bat lortzea zen, fisikoa edo sinbolikoa, eta fanzinearen ideia bururatu zitzaien. Aukera posible guztien artean hori hautatu zuten gogo artistiko bat ere badutelako.

2020ko udazkenean hasi ziren ideia lantzen, baina ez zioten aurtengo martxora arte ekin. Ondoren eten bat egin zuten eta abuztuan idatzi zituzten edukiak. Susinek honela azaldu du beraien ikuspuntua: "Kultura ez da inpartziala, klaseak zehazten du kultura, eta Kapitalismoa bere interesen arabera maneiatzen du klase gizartea. Horregatik, ari gara osotasun horri aurre egingo liokeen mundu ikuskera bat edo kultura komunista bat eraikitzeaz".

Itsasargi izatea, asmo

Nubes de caucho izenak bi erreferentzia ditu, bata, *A las barricadas* langile mugimenduko ereserkia, bertako "laino beltzak"; eta bestea, Lasarte-Oriaren historia. Kapitalismoaren adierazpide guztiak "ezbaian jarri" eta antolakuntzaren kultura hedatzea dute helburu. Argitalpena horretarako tresna bat da, "elementu politiko bat". Goiburu jarri diote "Ekaitzean argigune", izan ere, Susinen esanetan, "sistema honek burua eta bizitza lainotzen ditu".

Indibidualismoa eta kultura kapitalista izan dituzte ardatz lehen zenbakian, azken bi urteen ezaugarriak direla uste baitute. Polizia segika izatea, mugimenduak kontrolatzen dituzten programak, familiaren eta norberaren zama... "Indibidualismoa aipatzean, sistemaren biolentziari aurre egiteko moduaz ari gara. Salatzen dugu gaur egungo kulturak pentsarazten digula horiek kasu isolatuak direla, eta horrek dakarrela bakardadean erantzutea edo jasatea. Baina benetan arazo estrukturalak dira eta produkzioan betetzen duzun posizioak baldintzatzen du biolentzia hori jasatea ala ez. Beraz, gure ustez, klase bezala egin beharko genieke aurre, klase bezala eragiten digulako".

INDIBIDUALISMOA ETA KULTURA KAPITALISTA AZTERTU DITUZTE ESTREINAKO ZENBAKIAN

Ikuspuntu "sozialista edo marxista batetik" jorratuko dituzte gaiak. Edukiak askotarikoak dira: artikuluak, olerkiak, argazkiak eta marrazkiak, nagusiki; eta agian, ipuinak edota elkarrizketak.

Irakurria izatea, helburu

Lehen zenbakia egiteko prozesua gorabeheratsua izan bada ere, lau hilabetean behin atera nahiko lukete fanzinea. 150 aleko tirada egin dute eta hiru eurotan salgai dago zenbait herritan; Lasarte-Orian, Oreka tabernan eskura daiteke. Sarean jartzeko bideak aztertzen ari dira, ahalik eta jende gehiagorengana iristeko. Era berean, elebitan egitea "hautu politikoa" izan da, "langile klaseko sektore proletarizatuenak gazteleraz bizi direlako".

Lasarteoriatarren erantzuna "ona" izan dela uste du gazteak, nahiz eta hitzetatik ekintzetara pausoa ez eman. "Jende askok esan dit irakurri nahi duela, baina gero lekura joan eta erostea, gehiago kostatzen zaie...". Erreferentzia bat sortzea ona dela uste badu ere, nahi dutena jendeak irakurtzea da, "hori da interesgarriena". Gerora, hitzaldiak, mahai inguruak, kontzertuak... egiteko aitzakia ere izatea nahiko lukete, eta asmoarekin bat egiten duen edonor batzea taldera.

MUGICA & ABURRUZA
aseguru artekaritza, S. L.
*IBILGAILUAK
MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...
*BIZITZA ETA ERRETIROAK
*OSASUNA
*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK
*MERKATARITZA
*ERANTZUKIZUN ZIBILA
*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
*INBERTSIOAK
*PYMEAK...
Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13
Eguberri on!
AUTOESKOLA MUGICA

IRABAZI
URTE 1 DOAN
ZURE BETIKO ZINEMAN

CINESA URBIL

★ ★ ★ ★ ★

Zinema gustuko baduzu,
Urbil "zure etxea" da.

urbil



Zozketa

Deskargatu Urbil aplikazioa eta
aktibatu zozketa-kupoia: **ZINEMA DOAN**

Zozketaren oinarriak eta irabazlea
(abenduak 30) www.urbil.es-en

betiON
GARA

10 urte zure ondoan

betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu Publikoaren
medaila gorriak **segurtasuna eta lasaitasuna** eskaintzen digu
eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:
www.euskadi.eus/betion
900 851 600
012 Zuzenean

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Aizpuru: Aktorea

Trebetasuna erakutsi dute

Jantzi ederrak josi dituzte

Urtero gisa, Euskal Jantzi dotoreak luzituko dituzte lasarteoriatarrek, abendu amaieran. Ate joka ditugu San Tomas eguna eta Eguberrietako ospakizunak eta herritar askok jantzi berriak estreinatuko dituzte. Ttakun Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean urtero antolatzen duen Jantzi tradizionalen aurtengo ikastaroan ere fin aritu dira parte hartzaileak. Trebetasun handia erakutsi dute josteko makina eta hari artean; sekulako jantziak osatu dituzte. Senideentzako egin dituzte batzuek, euren buruarentzako beste batzuek, eta denek ala denek, kolore alaiak aukeratu dituzte. Urriaren 5ean hasi zuten aurtengo ikastaroa, eta ia bi hilabetez aritu dira lan eta lan. Sortutako piezen artean ikusi ahal izan ditu TXINTXARRI-k mahoizko galtzak, gonak, amantalak, jakak, gerruntzea eta alkandoraren bat ere bai; denak zoragarriak. Ione Artola jostuna izan dute gidari aurten ere eta bederatzi ikasle izan ditu. Azpimarratu du "oso txukun eta ongi" aritu direla denak ala denak. Euskal Jantzietan aditua den Ane Albisuren bisita ere izan dute. 1985etik gaia ikertzen dabil donostiarra Ikerfolk taldean, eta prestatzen ari den doktorego tesiaren hainbat eduki partekatu ditu ikastaroko parte hartzaileekin. Bestalde, Titare ikastaro trinkoa urtarrilean hasiko dela iragarri dute antolatzaileek. Bertan parte hartu nahi dutenek *kultura@ttakun.eus* helbidera idatzi behar dute edo 695 78 53 89 telefonora deitu.

Ane Albisu adituaren bisita izan dute aurtengo ikasleek; 1985etik gaia ikertzen ari da. TXINTXARRI

Askotariko koloretako oihalak erabili dituzte jantziak sortu eta apaintzeko. TXINTXARRI

Mahoizko galtzak egin ditu ikasle batek. TXINTXARRI

Senideentzako jantzi ugari egin dituzte. TXINTXARRI

Izan da pieza bat baino gehiago egin duen ikaslerik ere. TXINTXARRI

Artelan ederrak egin dituzte guztiek; ederki moldatu dira jostorratz eta hari artean. TXINTXARRI

Kolore gorriko jaka polita bat ere egin du aurtengo ikasle batek. TXINTXARRI

Mota askotako oihalak erabili dituzte; koloretako kotoiak eta pañoak, adibidez. TXINTXARRI

Forma apaingarri ederrekin jantzi dituzte sortutako lanak. TXINTXARRI

Gona eta bestelako piezen artean, jaka polit askoak ere josi dituzte. TXINTXARRI

Alkandora bat, baserritar janzteko. TXINTXARRI

Etxeko txikiak dotore jantziko dira urtea amaieran. TXINTXARRI

ANY T. IKASLEAK EGINDAKO KOMIKIA

Oriarte institutuko ikasle talde bateko kideak TXINTXARRI-ko erredakziora joan gara nola lan egiten duten ikustera. TXINTXARRI

Oriarteko ikasleak TXINTXARRI-n

Oriarte ikastetxeko DBH2 mailako ikasle talde bat Txintxarri-ren erredakziora joan gara. Aldizkari bat argitaratzeko asmoa dugu eta nor hobeto laguntzeko, haiek baino? Oso lagungarriak izan dira eman dizkiguten argibideak, orain gure esku dago erronkari heltzea

DBH2 MAILAKO IKASLE TALDE BAT

Oriarte institutuko DBH2ko ikasle talde bat gara eta duela zenbait aste TXINTXARRI-ko erredakzioa ezagutzeko aukera izan genuen. Aurtengo ikasturtean proiektu berriak gauzatzen ari gara bi irakasleren laguntzaz eta ebaluazio honetan aldizkari bat sortzea erabaki dugu, egiten ari garen lana azaleratzeko: gauza politak egiten ari gara eta uste dugu garrantzitsua dela horren berri ematea. Ez genuen bat ere argi aldizkari bat nola egiten den eta lanean hasi aurretik herriko aldizkarira egin genuen bisita aholku eske, inoiz ez baitugu horrelako proiekturik egin. Lantalde ia osoa zain genuen bulegora iritsi ginenean, gure galdera eta zalantzei erantzuteko gertu. Pazientzia handia erakutsi zuten txintxarritarrek eta prozesuaren nondik norakoak ederki azaldu zizkiguten. Aldizkariko langile jatorrez gain, argazki kamarek, bideo kamarek, grabagailuek eta tripodeek ongietorria eman ziguten, izugarria izan zen hauekin saltseatzeko aukera izatea. Ordenagailuan maketazioa nola egiten den ere azaldu ziguten.

Bisitan argi geratu zitzaigun antolaketa eta aurreko lanen garrantzia. Lehenik eta behin edukiak erabaki behar dira: zer kontatu nahi den, lanen banaketa, orrien distribuzioa... Elkarrizketatuak ere aukeratu behar dira eta dokumentazio lana egin ondoren galderak prestatu. Albisteak idazteko ere abilezia handia behar da. Berriak ilustratzeko oso garrantzitsua da argazki egokiak ateratzea eta berebiziko garrantzia du maketazioak. Horri guztiari azken orduko berriak gehitu behar zaizkie, sare sozialak eta webgunea elikatzea ahaztu gabe, noski. Gero, aldizkarien banaketa burutu behar da, etxez etxe. Ez da lan makala aldizkari bat sortzea! Ez ote diogu helburu potoloa jarri gure buruari?

EZ DA LAN MAKALA ALDIZKARI BAT SORTZEA! EZ OTE DA HELBURU POTOLOEGIA?

TALDE LANEAN JARDUTEA EZINBESTEKOA DA HORRELAKO PROIEKTU BAT GAUZATZEKO

Izango ote gara gai gure aldizkaria osatzeko?

Talde lanean jardutea ezinbestekoa da horrelako proiektu bat aurrera eramateko eta uste dugu gure aldizkariak horretarako balioko digula: ondokoarekin lanean jarduteko eta kideen laguntzarekin bidean aurrera egiteko. Horretan maisuak dira TXINTXARRI-ko gure lagunak, mila esker eta ea otsail amaieran gure aldizkariaren berri duzuen!

TXINTXARRI-ak eskuan genituela erakutsi ziguten nola sortzen zen aldizkaria. TXINTXARRI

Sari banaketak Gabonak ondo ospatzeko

Azken asteetan, zozketa ugari egin ditu Ttakun Kultur Elkarteak. Azaroan, elkarteko urteurrena dela eta, galdera lehiaketa bat jarri zuen martxan eta bi sari banatu zituen, hamar galderak ondo erantzuten zutenen artean; Jalgi Kafe Antzokiko patata tortilla eder baten irabazlea izan zen Izaro Lopez; bere seme Arnaurekin jaso zuen saria. Parte hartzaile guztien artean zozkatutako elkarteko 30. urteurreneko poltsa eskuratu zuen Xalba Otxandorenak.

Bestalde, Jalgune Elkartearekin batera eta bien urteurrenak ospatzeko 100 euroko bi sari zozkatu zituzten Aterpearen eskutik. Nieves Civicosek eraman zuen txartel bat eta Manuel Unanuek bestea, bere emazte Milak jaso zuen saria.

Zorionak, beraz, irabazle guztiei, eta behar bezala aprobetxatu izana espero dugu! Urte berrian ere, zozketa ugari izango dira TXINTXARRI-ren eta Ttakun Kultur Elkartearen eskutik!

TXINTXARRI

TXINTXARRI

MAiTE
ESTETIKA ARETOA
2022 zoriontsua opa dizuegu!
Ordutegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943-37 08 45

Gabon hauetan ongizatea oparitu gertukoei!
Opari-txartelak ditugu zerbitzuetan erabiltzeko
• Manikura eta pedikura
• Makillajea
• Aurpegi eta gorputz tratamentuak
• Solariuma
• Mota ezberdinetako depilazioak
• Betileen tindatzea eta *lifting*-a...

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA
2022 zoriontsua izan dezazuela!
· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943-37 17 33 - 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com / anorgatxiki@gmail.com

GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA
Ana
PELUQUERIA DE CABALLEROS
✓ Higienea bermatua
HITZORDUA HARTU!
943-84 19 72
672 71 72 06
Gabon zoriontsuak!
Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria

TEJIDOS FERNANDEZ
Fernández
ehunak
Eguberri eta 2022 zoriontsua opa dizuegu!
Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!
Kale Nagusia 2 - Tel. 943-36 16 07 - LASARTE-ORIA

Ongi igaro Eguberriak!!
AZPEITIA
Blas de Lezo, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 18 70
Fax: 943-36 21 79
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.

Sudokua

Egutegiko azken hila abendua da. Lotazila edo neguila ere esaten zaio. Bete itzazu hutsuneak abendua hitza osatzen duten hizkiez (A, B, E, N, D eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	E	B			N
	U				
		D		A	
	A		U		
				B	
A			E	D	

Dominoan

Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.

Mezua

Marrazkitxook ezkutatzen duten esaera ezin hobeto dihoakio mutiko honi. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta osatu esaera. Erabili irudi-alfabetoa.

Bide batez, irudia margotu.



ALFABETOA



Itzala

Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotxez mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena. Zein da?

Bide batez, margotu ezazu zure gustura.

Engainariak

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainariak dira. Bereiz itzazu.



Egilea: Garbiñe Ubeda

Soluzioak: www.plazanbazan.eus

ZORION AGURRAK

Maite
Maitasun handiz zure urtebetetze egunean zoriontzen zaitugu. Gehiago ere ospa ditzagula. Zure seme eta senarra.

Maitane
Urteak betetzea ez da zahartzea, pertsonalki haztea baizik.

Arkaitz
Zorionak aita eta familia guztiaren partez. Asko maite zaitugu. 21 muxu handi.

Aran
Zorionak eta ondo-ondo pasa zure 4. urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxekoen partez.

Aitziber
Zorionak amatxo. Zure etxeko bi sorgintxoen partez egun ederra opa dizugu.

Ainhoa
Zorionak, Mari Domingi! Miedra, bulegoko xaharrena ere badoala gaztetzen! Astelehenean, asteburuko gerra partea eskatuko dizugu e! Brabo, Enkarni, urte askotarako!

Jokin
Santamas eguna gertu dago eta guri ez zaigu ahaztu zure urtebetetze eguna ere izango dela! Ezin eskatuko dizugu hamaiketakoa, baina bisitatxo bat bai, ezta? Diaboloarekin zenbat aurreratu duzun erakutsi beharko diguzu ba! Kar, kar, kar. Zorionak, Jokin!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 17
Min. 05º Max. 12º

Larunbata, 18
Min. 06º Max. 12º

Igandea, 19
Min. 06º Max. 12º

Astelehena, 20
Min. 06º Max. 12º

Asteartea, 21
Min. 06º Max. 11º

Asteazkena, 22
Min. 07º Max. 11º

Osteguna, 23
Min. 08º Max. 11º

Ostirala, 24
Min. 07º Max. 11º

KOMIKIAK

OHARRAK

Odol ateratzeak

Lasarte-Oriako odol emaileek hileroko hitzordua dute abenduaren 28an, asteartearekin Antonio Mercero aretoan.Arratsaldeko 17:30etik 20:30era odol ateratzeak egingo dituzte.

Odola eman nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute 943-00 78 85 telefonora deituz.

Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrak gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

Beltzak RTren Gabonetako aaskia

Beltzak RTk jakinarazten du, urtero legez, produktuz betetako Gabonetako saskia zozkatuko duela. Txartelak ohiko tabernatan daude eskuragarri. Urtarrilaren 6ko ONCEko zenbakia duen txartela izango da irabazlea.

Heriotzen berri eman

Ingurukoren baten heriotzaren berri Txintxarri aldizkariako Heriotzak atalean eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren, izen-abizenak eta heriotza data *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 17	DE MIGUEL
Larunbata, 18	DE ORUE
Igandea, 19	DE ORUE
Astelehena, 20	LASA
Asteartea, 21	GIL
Asteazkena, 22	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 23	URBISTONDO
Ostirala, 24	ACHA-ORBEA
Larunbata, 25	ACHA-ORBEA
Igandea, 26	ACHA-ORBEA
Astelehena, 27	DE ORUE
Asteartea, 28	DE MIGUEL
Asteazkena, 29	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 30	GIL
Ostirala, 31	LASA

Larunbata, 01	LASA
Igandea, 02	LASA
Astelehena, 03	URBISTONDO
Asteartea, 04	GANDARIAS-URIBE
Asteazkena, 05	DE ORUE
Osteguna, 06	GIL
Ostirala, 07	LASA
Larunbata, 08	GIL
Igandea, 09	GIL
Astelehena, 10	DE MIGUEL
Asteartea, 11	ACHA-ORBEA
Asteazkena, 12	URBISTONDO
Osteguna, 13	GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK:
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

ABENDURAINO
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani
943 55 17 93

URTARRILETIK AURRERA
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani
943 55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK **APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen**
Informazio gehiago *www.cofgipuzkoa.com* webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatuko genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

LANA

ESKAINTZA

Klase partikularrak emateko pertsona behar da. DBH mailan. interesatua bazaude jarri harremanetan *irakasle@yahoo.com* bidez.

ESKARIA

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Lan bila nabil. Interno moduan edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbiketa lanak egingo nituzke, edota pertsona adinduak zaindu. Berehala lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 643 23 92 51

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaletan gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturtean zehar haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik. Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

ESKELA

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

OHARRA

TXINTXARRI aldizkariak agenda hau argitaratu duen egunera arte, bertan zerrendatutako ekintzek ez dute aldaketarik jasan koronabirusagatik.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA **Ekitaldia**
Lasarte-Oriako Kirolaren Gala antolatu du udalak. Gonbidapenak Manuel Lekuona Kultur Etxeko leihatilan eskura ditzakete herritarrek.
Kultur etxea, 19:00etan

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA **Kontzertua**
Alboka Abesbatzak Eguberrietako kontzertua emango du, Miren Gabirondo piano jotzailearen laguntzarekin. Sarrera, doan.
San Pedro parrokia, 20:00etan

LASARTE-ORIA **Antzerkia**
Lubaki lainotsua antzezlana taularatuko du ATX Teatroa konpainiak. Sarrerak 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan

IGANDEA 19

LASARTE-ORIA **Kontzertua**
Eguberrietako emanaldi berezia egingo du Zero Sette Akordeoi Orkestrak. Gabonetako abesti ezagunekin osatu dute errepertorioa. Sarrera doakoa izango da.
Zumaburuko eliza, 12:30ean.

LASARTE-ORIA **Ikuskizuna.** Olentzero, Mari Domingi eta lagunak (Xixuko, Mariteilatuko eta Porrotx) herrira jaitsiko dira hilaren 24an, eta lasarteoriatarrei ikuskizun koloretsua oparituko diete. Egoera tarteko, zein espaziotan egin erabakitzeko lanketa berezia egiten ari dira Ttakun Kultur Elkartea eta Lasarte-Oriako Udala, eta datozen egunetan emango dute behin betiko lekuaren berri. TXINTXARRI aldizkariak bere atari digitalean informatuko du horri buruz.
Hilaren 24an, 13:00ean. Tokia, zehazteke.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Etxeko txikienek *Una familia feliz 2* filma ikusi ahalko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan zein sarean eros daitezke.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Way down filma emango dute. 5,50 euro balio dute sarrerek.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA **Kontzertua**
Bi talo ikastaro antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak, gazteentzat bat eta helduentzat bestea. Doakoak dira.
Ttakunenea, 17:30etatik 19:30era.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA **Kontzertua**
Udal Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua emango dute. Sarrera doakoa izango da.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 24

LASARTE-ORIA **Kantaldia**
Erketz EDTko kideek Eguberrietako kantaldia egingo dute. Parte hartu nahi duenak 685 72 48 71 telefonora idatzi edo deitu behar du.
Txoko taberna, 16:30.

IGANDEA 26

LASARTE-ORIA **Zinema**
Trash filma emango dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Leihatilan edo sarean eros daitezke.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA **Zinema**
Cuidado con lo que deseas filma emango dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 29

LASARTE-ORIA **Kontzertua**
Black Pearls of Gospel taldea emanaldia egingo du. Sarrerek hamabi euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

OSTEGUNA 30

LASARTE-ORIA **Zinema**
Okendo Zinema Taldeak urteko azken zineforuma egingo du, eta *Semillas de limón con pan de amapola* filma proiektatu. Sarrerek 5,50 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:30ean.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA **Errezitaldia**
Harresi Guztien Gainetik ekimenak XI. Errezitaldia antolatu du, *Zubiak bizirik, beti aurrera begira* lelopean. Sarrera doakoa da.
Oriako eliza, 19:00etan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE
Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA
Ostadar SKT - Tolosa CF
Igandea. 15:00. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN 1. MAILA
Usurbil FT - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Harane, Usurbilen.

OHOREZKO JUBENIL MAILA
Euskalduna SD - Ostadar SKT
Larunbata. 18:45. Ubitarte, Andoainen..

JUBENILEN 1. MAILA
Urnieta KE A - Ostadar SKT A
Larunbata. 12:00. Urnietan.
Ostadar SKT B - Euskalduna SD
Igandea. 13:00. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA
Vasconia CD - Ostadar SKT
Larunbata. 13:45. Puio, Donostian.

KADETEEN 1. MAILA
Ostadar SKT A - Amara Berri KE
Larunbata. 12:05. Michelin kirol gunean.
Mundaiz SCD - Ostadar SKT B
Larunbata. 09:00. Martutene, Donostian.
Usurbil FT B - Texas Lasartearra CF
Larunbata. 10:30. Harane, Usurbilen.

OHOREZKO INFANTIL MAILA
Hernani CD - Ostadar SKT
Igandea. 17:30. Arratzain, Villabonan.

INFANTIL TXIKI, 2. FASEA
Ostadar SKT - Ordizia KE
Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN 1. MAILA
Usurbil Udarregi FT A - Texas Lasartearra
Larunbata. 09:00. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT B - Urnieta KE
Larunbata. 14:00. Michelin kirol gunean.
Danena KE - Ostadar SKT A
Igandea. 13:00. Elbarrena, Zizurkilen.

ARETO FUTBOLA

1. MAILA
Martutene La Terraza - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA
Eguzki ISU Leihoak - Getariako Keta FT
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA
Eguzki AF - Aldapeta C
Larunbata. 11:45. Maialen Chourraut kirol.

INFANTILEN MAILA
Herrikide I B - Eguzki AF
Igandea. 11:00. Eskolapioak ikas., Tolosan.

SASKIBALOIA

SENIOR 2. MAILA
Añorga Saskibaloia - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Benta Berri kir., Donostian.

SENIOR 3. MAILA
Ostadar SKT - TAKE Coach
Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDU
TAKE Redline Mekanika - Ostadar SKT
Larunbata. 10:45. Usabal kirol., Tolosan.

KADETE ERRENDIMENDU
Ostadar SKT - Zast Zarautz ZKE
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE PARTAIDETZA
Añorga Saskibaloia - Ostadar SKT
Igandea. 12:00. Benta Berri kir., Donostian.

INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA
BKL Pagoeta - Ostadar SKT (atzeratutako partida)
Ostirala. 18:00. Antzizar kirol., Beasainen.
Ostadar SKT - Ordizia Lacturale
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Zarautz 2009
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Zarautz 2009
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA
Clínica Colina Palencia RC - Gesalaga Okelan Zarautz RT
Larunbata. 17:00. Nueva Balastera, Palentzian.

EUSKAL LIGA 2. MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - La Unica RT
Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunea.

BOLE|BOLA

EUSKAL LIGA 2. MAILA
Aixerrota - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Fadura, Getxon.

KADETE MAILA
Ostadar SKT - Hernani KE 4
Larunbata. 09:15. Maialen Chourraut kirol.

IGERIKETA

EH TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTko Nora Imazek Distantzia Luzeko Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko du.
Larunbata. 09:45. Maialen Chourraut kirol.

PACO SANCHEZ SARIA
Buruntzaldea IKTko benjaminak eta alebinak XXI Paco Sanchez Sarian lehiatuko dira.
Larunbata. 15:30. Usabal kir., Tolosan.

NEGUKO LIGA
Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligako 4. jardunaldian parte hartuko dute.
Larunbata. 16:00. Hernanin.

IGERIKETA EGOKITUA
Buruntzaldea IKTko Nahia Zudairek VIII Open Internacional Mareastur proban lehiatuko da.
Larunbata eta igandea. Oviedon.

ATLETISMOA

PROBA LIBREA ETA TOPAKETA
Ostadar Atletismo saileko federatuek markak egiteko Proba Librea dute. Eskolarteko mailako atletek, berriz, jardunaldia dute.
Larunbata. Antonio Elorza belodromoa/ Miniestadio, Donostian.

KIROL GALA

Lasarte-Oriako Udalak Kirol Gala antolatu du. 2021 urteko Kirolari Onenaren sariak banatuko dira.
Ostirala. 19:00. Manuel Lekuona kultur etxean.

Maite BETELU
Ondo pasa eguberrietan!

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliaria zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitzen administrazioa

aterpea

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943-36 48 86 • www.mbetelu.com

Uraitz, s.l.

Igeltseritza Orokorra

2022 urte zoriontsua opa dizuegu!

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

Telefonoa
693 05 93 92
943-56 66 40

uraitz@uraitz.com
www.uraitz.com

BULEGOA:
Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA

RPS 181/19

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ESTREINA EZAZU IRRIBARREA!

TITANIOZKO INPLANTEETAN PROMOZIO BERRIA
URTARRILAREN 31RA ARTE

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales

ELGOIBAR · LASARTE-ORIA ·TOLOSA

943-36 63 77